

# Aurkitu eta ordeztu aurreratua MS Word testu trataeran

---

GOTZON EGIA

## 1. Sarrera

Aspaldi joanak dira itzultzaileak paper gainean lan egiten zuen garaiak. Ordenagailua da, egunotan, itzultzailearen *lagunik handiena*, haren atseginera nahiz gogoz kontrara izan. Ez daiteke pentsa bere bizibidea itzulpengintzan daukanak tresna informatikoen bazter lan egin dezakeenik, are gutxiago ordenagailuak zenbat eta indartzenago, itzulpen merkatua orduan eta lehiatsuago bihurtzen ari denean.

Ez da harritzekoa: irudi luke ordenagailua lanabes pertsonal gisa asmatzea egin zuenak itzultzailearen lanbidea zuela gogoan, harentzat berariaz sortutako tramankulua balitz edo. Zergatik? Arrazoi sakona dago hor: ahozko mintzaira eta idatzizko jarduna, ordenagailuak biak bildu dituela esan daiteke, bataren nahiz bestearen alderdi onei abegi, eta gaiztoei ihes eginaz.

Ahoz egindako mintzoa erraza da, merkea nolabait esateko, ahalegin edo neke handirik eskatzen ez duena, libre, moldaerraza, akatsetan atzera egin eta galdutako bidea berreskuratu erraza, zuzengarria beraz; hori dena du alde ona. Alde txarrik ere badu, bistan denez: esan ahal, hitzak haizeak eraman ditzake. Grabatu eta cuskarri finko batean jasotzea edo, areago, ordenagailuak ulertuko duen formatu elektronikoan jartzea ez da, inolaz ere, lantegi zaila egunotan, baina... Ez gara *idazteko* mintzatzen, ahozko eta idatzizko jardunaren artean badago tarte handirik.

Idatziz jasotako hitzak berez dira finkoak, paper gainean jarri orduko aise egiten baitira noranahi eraman, kopiatu, banatu, jakitera eman, eta gorde, jatorriz hitzok zuten esanahiaren eta moldearen zirkinik ere galdu gabe. Alde makur nabarmenak ditu testu idatziak, hala ere: aldagaitza da, garestia, lotua, moldaezina, atzerarik gabekoa.

Zer dira ordenagailuko pantaila edo ekranean ikusten ditugun testuak? Idatzizkoak dira, ala ahozkoak? Bietatik, esan genezake: ahozko mintzoaren moldaeraztasun guztia gordetzen dute, eta aldi berean finkotasunaren ezaugarria bereganatua dute, aldi oro joan baitaitezke paperera, nekerik gabe joan ere.

Okinak ogia egiteko lantzen duen oreka bezala, halakoxeak dira ordenagailuko testuak itzul-tzailearentzat: guztizko lehengaiak.

Jarraian datozen lerroetan gure lehengai diren testu elektronikoak errazkiago landu, orraz-tu, biribildu, eta azken finean itzulpena kalitatez janzteko tresna lagungarri bat aztertuko dugu: aurkitu eta ordeztu funtzio aurreratua MS Word testu trataeran. Mugak berarekin ditu asmoak, noski: PCrako MS Word 97 edo 2000 hartuko ditugu aintzat.

Zernahi ere, mugak zabaltze aldera, komeni da gogoan izatea hemen aipatuko ditugun guz-tiak dokumentu baten barruan hitzak aurkitu eta ordezteko eragiketak izanik ere, eragiketa horiek dokumentu askotan batera egin daitezkeela Funduc Software, Inc. enpresak sortutako makroa baliatuta (doan banatzen da, euskarazko bertsioa barne <http://www.searchandreplace.com> helbidean).

Azalpenak argi gelditu daitezten, aurkitu eta ordeztu funtzioan erabiltzen diren hitz eta esal-diak bildu ditugu amaierako lehen eranskinetan, ingelesezkoen euskarazko, gaztelazko eta fran-tsezko ordainekin.

## 2. Aurkitu eta ordeztu funtzio aurreratua

Itzulzaileari zorionez gero eta gehiagotan etortzen zaio itzulgaia formatu elektronikoan. Lan astun askori «izkintxo» egiteko mesedegarria da hori: zenbakiak, izen propioak, bibliogra-fia zerrendak, eta gisakoak aldaketa handirik gabe har daitezke askotan jatorrizkotik, itzulpe-nean ostera idatzi behar ez izateko. Aldatu beharreko xehetasun horietan izaten dira, baina, halakoetan buruhauste.

Adibidez, erraz asma ditzakegu dokumentu batean “Oyarzun” herri izena “Oiartzun” bi-hurtzeko egin beharreko urratsak:

Aurkitu hau:

Oyarzun

Ordeztu honekin:

Oiartzun

Gauzak zaildu egin ohi zaizkigu, ordea, aurkitu eta ordeztu beharrekoak korapilatsuagoak direnean: nola egin, adibidez, zenbakiz beteriko taula luze batean ehunekoaren ikurra (%) zenba-kien atzetik, hizkuntza askotan idazten den bezala, zenbaki berorien aurrera ekartzeko? Nola egin bibliografia zerrenda amaigabea aipamener orrialde zenbakien aurretik dagoen «pág.» edo «p.» laburdura «or.» bihurtu eta zenbakien atzera eramateko? Erantzuna: *zernahitarako karaktereak* erabili behar dira.

Aurrera baino lehenago, ohar bi izan behar dira kontuan: lehena, aurkitu eta ordeztu era-giketa dokumentu osoan ez baizik testu zati batean bakarrik egin daiteke: aski da testu zati hori saguaz hautatu edo nabarmentzea, aurkitu-ordeztu eragiketak egin, eta Word-ek jarraitu nahi ote dugun galdetzen duenean Ez botoia sakatzea. Bigarrena: eragiketa horietan Ordeztu denak botoia sakatuta, jarritako ereduaren arabera dokumentuan edo hautatutako testu zatian diren

egoera guztiak aurkitu eta ordeztu ditu; bat-banaka aztertu eta erabaki daitezke, ordea, Ordeztu botoia erabilia: Word-ek hurrengoa aurkitzen duenean gelditu egingo da, eta aurkitutako hura ordeztu nahi ez badugu Aurkitu hurrengoa sakatzea aski da.

Albo batera utziko ditugu, bestalde, Formatua botoiaren bitartez egin daitezkeen ordeztu eragiketa guztiak (adibidez, karaktere edo testu multzo jakin baten letra moldea aldatzea edo ezkerreko koska handitzea).

### **3. Zernahitarako karaktereak**

Word-eko Aurkitu eta ordeztu elkarrizketa leihoan Erabili zernahitarako karaktereak laukitoxoa pizturik dagoela, Berezia botoia erabilia atera daitezke. Horien bitartez bilaketa baldintza konplexuak sortzen ahal dira, adibidez, hitz multzo batean hitzen ordena aldatzea, hitzen barruko karaktere tarte jakin bat aurkitu eta ordezte, halako hasiera edo amaiera duten hitzak aurkitu eta ordezte, eta abar.

Jarraian diren erroetan zernahitarako karaktereak itzulpengintzaren ikuspegitik erabiltzeko adibide batzuk azalduko ditugu, baina argibide gehiago nahi duenak Word-eko laguntza fitxategietan eskura dezake, edo artikulu honen amaierako 2. eranskinean jaso dugun laburpen taulan.

Erne, dena dela: badaezpada, hobe da frogako dokumenturen batean jardutea, zernahitarako karaktereen erabilera trebetasun apur bat izan arte.

### **4. Gehiegizko letragune zuriak kendu**

Maiz gertatu ohi da dokumentu batean letragune zuri soberakinak kendu beharra. Adibidez, Microsoft-eko nabigatzailea (Explorer) erabili ezean, Interneteko web orriren batetik kopiatu eta Word-en itsatsitako testu zatietan, gauzak ez dira txukun gelditzen: lerro amaieran paragrafo marka bana ageri da, eta gehienetan lerro bakoitzaren hasieran letragune zuri mordoska bat.

Zernahitarako karaktereak erabilia, honela kentzen ahal dira soberako letragune bikoitzak:

Aurkitu hau:

·{2;}

Ordeztu honekin:

Oharra: · ikurrak letragune zuri arrunta irudikatu nahi du hemen; jakina, Word-eko elkarrizketa leihoan ez da halakorik idatzi behar.

### **5. Web orrietatik hartutako testuak txukundu**

Web orrietatik testu zati luzeak kopiatu eta Word-en itsatsi nahi baditugu, agian irtenbide onena da Microsoft-en familiako nabigatzailea erabiltzea (Explorer), handik kopiatutako testuek ezaugarri formal guztiak zuzen jasotzen baitituzte Word-en.

Alabaina, Microsoft-en nabigatzailea ez den beste tresna batetik abiatuta, web orrietatik kopiatu eta Word-en itsatsitako testuetan letragune zuri ugariak eta soberako lerro amaierak egon ohi dira. Adibidez, Senez aldizkariko 22. zenbakian Karlos del Olmok argitara emandako «Kalitate arauak itzulpengintzan: jaio dira berriak» artikulua bertsio elektronikotik (<http://www.eizie.org/euskara/argital/senez/22/kolmo.htm>) lehen paragrafoaren amaierako eta bigarrenaren hasierako zatikia Netscape-rekin hartu eta Word-en itsatsita, itxura honetara gelditzen da (karaktere guztiak agerian dituela):

```
Kalitatea ezingo da erdietsi¶
.....bezeroak jardunbidean esku hartu ezean
(dokumentazioa, terminologia,¶
.....formatua...). Bezeroari begirako
kalitateaz berba egin behar genuke.¶
¶
.....Historiari begira, kalitatearekiko ardura
ia atzo arratsaldekoa da hainbat¶
.....industriatan eta ia gaur goizekoa
hizkuntz industriei gagozkiela. Hala ere,¶
.....kalitateari estu-estu loturiko beste alor
bat zaharragoa da: itzulpengintza¶
.....automatikoa bera.¶
```

Urrats hauek egin behar ditugu testua garbitu eta bere onera ekartzeko, beti ere Aurkitu eta ordeztu eragiketak erabiliaz.

Lehenik, zernahitarako karaktereen laukitxoak itzalita, egingo dugu:

Aurkitu hau:

^p^p

Ordeztu honekin:

ı

Hori da, aurkitu bi paragrafo marka jarraian, eta ordeztu ı ikurrarekin. Horrela, bi paragrafoen artean dagoen lerroarte hutsa gordeko dugu. Zergatik ı ikurraz ordeztu hain zuzen? Halakorik ez dugulako erabiltzen euskaraz, eta ziurrenik ez delako testuan beste inon halakorik egongo. Testua honela geldituko da:

```
Kalitatea ezingo da erdietsi¶
.....bezeroak jardunbidean esku hartu ezean
(dokumentazioa, terminologia,¶
.....formatua...). Bezeroari begirako
kalitateaz berba egin behar genuke.ı
.....Historiari begira, kalitatearekiko ardura
ia atzo arratsaldekoa da hainbat¶
.....industriatan eta ia gaur goizekoa
hizkuntz industriei gagozkiela. Hala ere,¶
```

.....kalitateari estu-estu loturiko beste alor  
bat zaharragoa da: itzulpengintza¶  
.....automatikoa bera.¶

Orain, soberako letragune zuriak kenduko ditugu, zernahitarako karaktereen laukitxoa piz-  
tuta:

Aurkitu hau:

·{2;50}

Ordeztu honekin:

Horrek esan nahi du: aurkitu 2tik 50era bitarteko letragune zuri multzoak, eta ezabatu,  
Ordeztu honekin alorrean ez baitugu *deus* idatzi. Testua era honetan geldituko da:

Kalitatea ezingo da erdietsi¶  
bezeroak jardunbidean esku hartu ezean (dokumentazioa,  
terminologia, ¶  
formatua...). Bezeroari begirako kalitateaz berba egin behar  
genuke.¿  
Historiari begira, kalitatearekiko ardura ia atzo arratsaldekoa  
da hainbat¶  
industriatan eta ia gaur goizekoa hizkuntz industriei  
gagozkiela. Hala ere, ¶  
kalitateari estu-estu loturiko beste alor bat zaharragoa da:  
itzulpengintza¶  
automatikoa bera.¶

Azken bi urratsak gelditzen zaizkigu: lerro amaierako paragrafo marka kentzea, eta jatorriz-  
ko bi paragrafoak bereiztea. Zernahitarako karaktereen laukitxoa itzalita, egingo dugu:

Aurkitu hau:

^p

Ordeztu honekin:

Era horretan, lerro amaierako paragrafo markak letragune zuri bihurtuko ditu, aurreko eta  
segidako hitzak ez daitezen elkar. Testu honela geldituko da:

Kalitatea ezingo da erdietsi bezeroak jardunbidean esku hartu  
ezean (dokumentazioa, terminologia, formatua...). Bezeroari  
begirako kalitateaz berba egin behar genuke.¿Historiari begira,  
kalitatearekiko ardura ia atzo arratsaldekoa da hainbat

industriatan eta ia gaur goizekoa hizkuntz industriei gagozkiela. Hala ere, kalitateari estu-estu loturiko beste alor bat zaharragoa da: itzulpengintza automatikoa bera.¶

Amaitzeko, paragrafo biak lerroarte batez bereizteko gorderik dugun ikurra erabilia:

Aurkitu hau:

¿

Ordeztu honekin:

^p^p

Testua honela geldituko da:

Kalitatea ezingo da erdietsi bezeroak jardunbidean esku hartu ezean (dokumentazioa, terminologia, formatua...). Bezeroari begirako kalitateaz berba egin behar genuke.¶

¶

Historiari begira, kalitatearekiko ardura ia atzo arratsaldekoa da hainbat industriatan eta ia gaur goizekoa hizkuntz industriei gagozkiela. Hala ere, kalitateari estu-estu loturiko beste alor bat zaharragoa da: itzulpengintza automatikoa bera.¶

Artikulu honen amaieran, 3. eranskinean, Word-eko makro batean bildurik ageri dira atal honetan azaldutako urratsok, VisualBasic-eko kodean emanak.

Txukunbide honek ez du, baina, beti balio: web orriko testua zutabetan baldin badago, poemak baldin badira (lerroaldi guztiak elkartuko egingo lituzke), edota beste formatu konplexurik baldin badu, makroaren emaitza ez da ona izango.

## 6. Zenbakien karaktere bereizlea ordeztea

Ingelesezt, adibidez, zenbakiak era honetan idazten dira: 12,345,678.12. Hau da, milakoak bereizteko koma darabilte, eta dezimalak bereizteko puntua. Euskarazko ereduaren alderantzizkoa, alegia. Beste hizkuntza batzuetan, milakako komaren ordeztu banaezinezko hutsarte erabiltzen dute. Bata zein bestea, nola ekarri formato horiek euskaraz dugun eradura, banan bana eskuz egin gabe?

Gure adibidea 12,345,678.12 dela kontuan izanik, lehenik dezimalen bereizlea ordeztuko dugu, baina ez diogu puntua koma batez ordezteko esango, bestela milakoak bereizteko beste koma horiekin berdinduko bailitzateke. Beraz, beste karaktere berezi batez ordeztuko dugu:

Aurkitu hau:

([0-9-]).([0-9])

Ordeztu honekin:

\1¿\2

Horrek esan nahi du: aurkitu edozein zenbaki tarte [0-9], gutxienez behin errepikatzen dena {1;}, segidan puntu batez berezirik beste horrenbestekoa duena. Parentesiak erabilia, bi multzotan banatu ditugu: puntuaren aurrekoa, eta puntuaren atzekoa. Horrela, ordeztzerakoan erabaki dugu bi multzoak zein bere tokian gelditzea, baina erdiko bereizlea puntuaren ordeztze «;» ikurra izatea.

Gure adibidea honela geldituko da: 12,345,678;12

Jarraian, komak ordeztuko ditugu:

Aurkitu hau:

([0-9-]),([0-9])

Ordeztu honekin:

\1,12

Orduan, gure adibidea honela geldituko da: 12.345.678;12

Prest gaude, azkenik, dezimalak bereizteko utzi dugun karakterea ordeztzeko:

Aurkitu hau:

([0-9-]);([0-9])

Ordeztu honekin:

\1,12

Horrela, gure adibidea nahi genuen formatuaz utziko dugu: 12.345.678,12

## **7. Multzo jakin batean karaktereak lekuz aldatzea**

Jatorrizko itzulgaia modu elektronikoa dagoenean, pasarte luze bezain aspergarriak erabili daitezke askotan, jatorrizkotik aldaketa ttipi batzuk eginda. Aldaketa ttipiak, bai, baina korapilatsuak, ordezte sistematikoa ongi egiten ez badugu asmatzen.

Atal honetako ordeztzen eragiketa guztiak zernahitarako karaktereak erabilia egingo ditugu.

### 7.1 Ehunekoaren ikurra

Adibide errazena ehunekoaren ikurra da. Jakina dugu itzulgai batean zenbakiak asko baldin badira, onena berriro idatzi behar ez izatea dela: jatorrizkotik hartzea, dauden-dauden, errazagoa eta batez ere ziurragoa da, zenbakiak berridazterakoan akatsez ohartzea neketsua baita. Beraz, jo dezagun zenbaki multzo handia dugula, ehunekotan emana (estatistika gaietan, adibidez). Nola ekarri zenbakiaren aurrera ehunekoaren ikurra (%), aldi berean ikurraren eta zenbakiaren artean banaezinezko letragune zuria ipinita? Izan ere, nire ustez ehuneko ikurra eta zenbakiak berezi egin behar dira, baina beti ere banaezinezko hutsarte batez bereiztea komeni da, bestela lerro amaieratan-eta, ikurra eta zenbakiak aldendurik geldi daitezke. Hona hemen.

Eman dezagun adibide bat:

23%  
58,3%  
0,1%  
117%  
202,2%

Lehenik, balio dezimala duten zifrak ordeztuko ditugu:

Aurkitu hau:  
 $([0-9]\{1;\}),([0-9]\{1;\})(\%)$

Ordeztu honekin:  
 $\backslash 3^s \backslash 1, \backslash 2$

Horrek esan nahi du: aurkitu edozein zenbaki tarte  $[0-9]$ , gutxienez behin errepikatzen dena  $\{1;\}$ , segidan koma batez berezirik beste horrenbestekoa duena, eta segidan ehuneko ikurra duena. Parentesiak erabilia, hiru multzotan banatu ditugu: komaren aurrekoa, komaren ondorengoa, ikurra. Horrela, ordeztetakoan erabaki dugu lehenengo lekuan jartzea ikurra  $\backslash 3$ , eta atzetik zenbakia dezimalekin  $\backslash 1, \backslash 2$ .

Gure adibideko zenbakiak era honetan geldituko dira:

23%  
% 58,3  
% 0,1  
117%  
% 202,2

Bigarrenik, balio dezimalik gabekoak ordeztuko ditugu:

Aurkitu hau:  
 $([0-9]\{1;\})(\%)$

Ordeztu honekin:  
 $\backslash 2^s \backslash 1$

Eta gure adibideko zenbakiak guztiz ongi geldituko dira:

% 23  
% 58,3  
% 0,1  
% 117  
% 202,2



## 7.2 Bibliografia zerrendak

Bibliografia zerrendetan, gauza gutxi izaten dira itzuli beharrekoak, egileen izenak, izen-buruak, argitalpen lekuak eta gainerakoak ez baitira itzulgai. Xehetasun bat izaten da, ordea, oztopo: orrialdeak aipatzen direnean, orrialdearen laburdura gure albo hizkuntza gehienetan zenbakiaren aurretik ipintzen da (adibidez, «p. 123»). Laburdura hori orrialdearen euskal laburduraz («or.») ordeztu eta zenbakiaren atzera eramanda, arazoa erraz konpon daiteke.

Orrialdeen aipamena bi eratakoa izan daiteke: orrialde bakan batena (adibidez, «p. 123», edo orrialde sail batena (adibidez, «p. 123-456»). Ikus dezagun nola egin behar den ordeztuena. Aukera guztiak aztertze aldera, har ditzagun adibide hauek:

p. 1  
p. 1-2  
p. 12-34  
p. 123-456  
p. 1234-5678

Lehenik, orrialde sailen aipamenak ordeztuko ditugu:

Aurkitu hau:  
p. ([0-9]{1;})-([0-9]{1;})

Ordeztu honekin:  
\1-12 or.

Horrek esan nahi du: aurkitu «p.» baten atzetik edozein zenbaki tarte [0-9], gutxienez behin errepikatzen dena{1;}, eta segidan marra (-) batez berezirik beste horrenbestekoa duena. Berrito, parentesiak erabilia marraren aurrekoa eta ondokoa bi multzotan banatu ditugu. Ordezterakoan, multzoak bere lekuan utzi ditugu, baina aurreko «p.» hori desagertu da, eta atzetik «or.» erantsi diogu.

Gure adibidea honela geldituko da:

p. 1  
1-2 or.  
12-34 or.  
123-456 or.  
1234-5678 or.

Orain bakarrik gelditzen zaigu orrialde bakan baten aipamenak ordeztea:

Aurkitu hau:  
p. ([0-9]{1;})  
Ordeztu honekin:  
\1 or.

Horrela, adibidea guztiz ongi geldituko da:

1 or.  
1-2 or.  
12-34 or.  
123-456 or.  
1234-5678 or.

Atal honetan, laburdurazko «p.» hori jatorrizko itzulgaian batzuetan letra xehez eta bestee-  
tan letra larriz agertzen baldin bada, Aurkitu hau alorrean, hasieran idatzi ordez: p. (pe letra eta  
puntuak), idatzi behar dugu: [Pp]. (kortxetea, pe larria, pe xehea, kortxetea, puntuak). Horrela,  
berdin aurkituko ditu pe guztiak, larriak nahiz xeheak izan.

### **8. Ordinala gehi izena alderantziz jartzea**

Legeetan eta antzeko xedapenetan, egituraren araberako sailkapen batez bereizten dira testu  
zatiak: atalburuak, atalak, artikulua, eta abar. Adibidez, itzulgaia gazteleraz baldin badago,  
«Título 1», «Capítulo 2º» edo «Artículo 3» izan daitezke, zenbakiak gorabehera maiz errepika-  
tuko direnak.

Euskaraz, jakina, ordinala aurretik jarri behar dugu, puntu bat jarraian duela. Adibidetzat  
har ditzagun:

Artículo 1  
Artículo 10  
Artículo 100

Gogoan izan hasierako letra beti larria izango dela gazteleraz, paragrafo hasieran dagoenez.  
Ordezpena egiteko honela jokatu behar dugu:

Aurkitu hau:  
Artículo ([0-9]{1;})

Ordeztu honekin:  
\1. artikulua

Horrela, «Artículo» hitzaren atzetik edozein zenbaki duten kasu guztietan, zenbaki hori aurrera  
eraman, puntu batez ordinala bihurtu, eta atzetik «artikulua» hitza idatziko du:

1. artikulua  
10. artikulua  
100. artikulua

Jatorrizkoan zenbakia ordinala baldin bada («Artículo 1º», alegia), aski da Aurkitu hau alo-  
rrean Artículo ([0-9]{1;})<sup>(°)</sup> idaztea, eta beste guztia berdin.

Beste horrenbeste egin daiteke, noski «Título», «Capítulo» eta gainerakoekin. Ber gauza egin daiteke ordinal arrunten ordeztu zenbaki erromatarrek baldin badira («Capítulo IV» eta gisakoak). Horrelakoetan, era honetara jokatu behar dugu:

Aurkitu hau:  
Capítulo ([A-Z]{1;})  
Ordeztu honekin:  
\\1. atalburua

Badaezpada, kontuan izan dezagun agian itzulgaiaren egileak banaezinezko zuriunea idatz dezakeela izenaren eta ordinalaren artean. Ez badakigu ziur zuriune arrunta edo banaezinezkoa dagoen, [^s] esamoldeak bi aukerak hartuko ditu kontuan. Aurreko adibidean, esate baterako:

Aurkitu hau:  
Capítulo[^s]([A-Z]{1;})  
Ordeztu honekin:  
\\1. atalburua

Oharra: oroituz, ikurra ez dela idatzi behar; hemen erabili dugu bakar-bakarrik letragune zuri arrunta irudikatzeke.

Alderantziz ere izan daiteke, guk itzulpenaren zuriune arruntaren ordeztu banaezinezko hutsartea jarri nahi izatea ordinalaren eta izenaren artean. Azken adibideari jarraituz, honela egin behar dugu:

Aurkitu hau:  
Capítulo ([A-Z]{1;})  
Ordeztu honekin:  
\\1.^satalburua

## 9. Ondorio batzuk

Aurreko lerroetan aztertu ditugun arazoak ez dira, izatez, itzulpen arazoak, baina badute zerikusirik itzultzaileak bere lana egiteko behin eta berriro gainditu behar izaten dituen oztopoekin. Itzulgaiaren euskarri digitala profitaturik, itzulpenari formatu egokia ematea, datu numerikoak edo izen propioak osteraz ez idatzi behar izatea eta, oro har, itzuli behar ez diren testu zatian berreraileak lan aurrezpen neurgaitza izan daiteke askotan.

Alde on guztiekin batera, ordenagailuak lan mekanikoa erantsi dio halaberrez itzulpen-gintzari, itzultzailea baita hastapenetik azkenera itzulpenaren testu behinbetikoa ez bakarrik idazten duena, baizik baita mekanikoki *jotzen* duena ere. Beraz, zilegi ez ezik, premiazko ere

badugu txanponaren gibelaldea ikusaraztea: ordenagailuaren ahalmena trebetasunez erabiltzea itzulpengintzaren alderdi mekanikoak laster eta arin egiteko.

Izan ere, eskuartean dugun lan tresna nagusiari, ordenagailuari alegia, zeregin astun eta errepikagarriak nekerik gabe egiteko etekin hobea ateratzen diogun neurrian, gure denbora eta ahalmenak hobeki erabiltzen ahalko ditugu itzulpengintzak berezkoa duen eginkizun intelektualean.

## 1. eranskina \*

### Word-en aurkitu eta ordeztu. Elkarrizketa leihoan ageri diren hitzak

Ingelesez	Euskaraz	Gazteleraz	Frantsesez
Search and replace	Aurkitu eta ordeztu	Buscar y reemplazar	Rechercher et remplacer
Search for	Aurkitu	Buscar	Rechercher
Replace	Ordeztu	Reemplazar	Remplacer
Go to	Joan	Ir a	Atteindre
Replace with	Ordeztu honekin	Reemplazar con	Rempalcer par
Match Case	Maikuskula/minuskula	Coincidir mayúsculas y minúsculas	Respecter la casse
Find Whole Word Only	Hitz osoak soilik	Palabras completas	Mot entier
Use Wildcards	Ereduari jarraitu	Usar caracteres comodfn	Utiliser les caractères génériques
No format	Formaturik gabe	Sin formato	Sans attributs
Format	Formatua	Formato	Format
Special	Berezia	Especial	Spécial
Find next	Hurrengoa aurkitu	Buscar siguiente	Suivant
Cancel	Utzi	Cancelar	Annuler
Replace all	Ordeztu guztiak	Reemplazar todos	Remplacer tout
More	Gehiago	Más	Plus
Less	Gutxiago	Menos	Moins

\* Oharra: eskerrak eman nahi dizkiet Susan Larsson (slarsson@ncia.com), Antton Gurrutxaga (agurrutxaga@elhuyar.com) eta Xan Orhaburu (xanoth.eh@wanadoo.fr) adiskideei, eranskin hau osatzeko eman didaten laguntzagatik.

## 2. eranskina

### Word-en aurkitu eta ordeztu aurreratua. Zernahitarako karaktereen azalpena

‘Erabili zernahitarako karaktereak’ laukitxoa pizturik denean, Microsoft Word-eko zernahitarako karaktereen funtzioak erabil daitezke. Argibide gehiago behar izanez gero, ikus Microsoft Word F1 laguntza.

Gauzak errazteko, hona hemen Word 97 eta 2000ko zernahitarako karaktereen laburpena.

Aurkitu nahi izanez gero...	Erabili hau	Adibideak
Edozein karaktere bakan	?	s?a bilatuta berdin aurkitzen ditu ‘sua’ eta ‘soa’
Edozein karaktere multzo	*	ingur*a bilatutako berdin aurkitzen ditu ‘ingurua’ eta ‘ingurumena’
Zehaztutako karaktereetako bat	[ ]	s[uo]a bilatuta berdin aurkitzen ditu ‘soa’ eta ‘sua’, baina ez ‘sea’
Edozein karaktere bakun tarte honetan	[-]	su[h-t]ar bilatuta berdin aurkitzen ditu ‘suhar’, ‘sukar’ eta ‘sutar’.Tarteak a-tik z-tarako ordenan izendatu behar dira.
Edozein karaktere bakun baina ez kortxete artean ageri diren karaktereak	[!]	su[!t]ar bilatuta berdin aurkitzen ditu ‘suhar’ edo ‘sukar’, baina ez ‘sutar’
Edozein karaktere bakun baina ez kortxete artean ageri den karaktere tarte	[!x-z]	su[!a-s]ar bilatuta ‘sutar’ aurkituko du, baina ez ‘suhar’ edo ‘sukar’
Aurretik dagoen karaktere edo testuaren n agerpen zehazki	{n}	ar{2}o bilatuta ‘arro’ aurkituko du, baina ez ‘aro’
Aurretik dagoen karaktere edo testuaren n agerpen gutxienez	{n,}	ar{1,}o bilatuta berdin aurkitzen ditu ‘aro’ eta ‘arro’
Aurretik dagoen karaktere edo testuaren n-tik m-ra bitarteko agerpenak	{n,m}	10{1,3} bilatuta berdin aurkitzen ditu ‘10’, ‘100’ eta ‘1000’
Aurretik dagoen karaktere edo testuaren agerpen bat edo gehiago	@	mar@a bilatuta berdin aurkitzen ditu ‘mara’ eta ‘marra’
Hitzaren hasiera	<	<(handi) bilatuta ‘handitu’ edo ‘handi-uste’ aurkituko ditu, bana ez ‘buruhandi’
Hitzaren amaiera	>	(rne)> bilatuta ‘barne’ edo ‘erne’ aurkituko ditu, baina ez ‘barnetik’ edo ‘ernetu’

**Oharrak:**

- Zernahitarako karaktereak erabiltzen direnean agian Word-ek ez ditu kontuan hartuko letra larri edo xeheak. Hobe frogia egitea lehenago.
- Parentesiak erabil daitezke zernahitarako karaktereak eta testuak multzotan banatu eta ebaluazio ordena erabakitzeko. Adibidez, <(era)\*(garri)> idatziz gero, 'eramangarri', 'erakargarri', 'erakusgarri' eta abar aurkituko ditu.
- Baita ere, \n zernahitarako karakterea erabil daiteke, testu zati bat bilatu eta ordezen esaldian beste leku batean kokatzeko. Adibidez, Aurkitu hau alorrean (Etxeberria) (Miren) idatzita, 'Ordeztu honekin' alorrean \2 \1 idatziz gero, Word-ek 'Etxeberria Miren' aurkitu eta 'Miren Etxeberria' ordeztuko du.
- \n zernahitarako karakterea erabiltzeko, aurkitu nahi duzun testuaren barruko zernahitarako karaktereak parentesi ( ) artean idatzi behar dituzu. Adibidez:
  - 'hemen dago argia' esaldia 'Hor argia dago' esaldiaz ordezteko:  
Aurkitu hau: hemen (\*) argia  
Ordeztu honekin: Hor argia \1
- 'Hor bertan dago argia' esaldia 'Hor bertan bertan dago dago dago dago argia' esaldiaz ordezteko:  
Aurkitu hau: Hor (\*) (\*) argia  
Ordeztu honekin: Hor \1 \1 \2 \2 \2 argia

### **3. eranskina**

#### **Intertest makroa: Interneteko web orrietatik hartutako testuak Word-en txukuntzeko**

Jarraibideak: Word-eko menuan Tresnak barruan, Makroak, Makroak, Sortu. Eskuinean, makroaren kodea erakusten duen leihoan, kopiatu hau:

```
Sub Intertest()  
,  
, Intertest Macro  
,  
  
    Selection.Find.ClearFormatting  
    Selection.Find.Replacement.ClearFormatting  
    With Selection.Find  
        .Text = «^p^p»  
        .Replacement.Text = «;»  
        .Forward = True  
        .Wrap = wdFindContinue  
        .Format = False  
        .MatchCase = False  
        .MatchWholeWord = False  
        .MatchWildcards = False  
        .MatchSoundsLike = False  
        .MatchAllWordForms = False  
    End With  
    Selection.Find.Execute Replace:=wdReplaceAll  
    Selection.Find.ClearFormatting  
    Selection.Find.Replacement.ClearFormatting  
    With Selection.Find  
        .Text = « {2;50}»  
        .Replacement.Text = «»  
        .Forward = True  
        .Wrap = wdFindContinue  
        .Format = False  
        .MatchCase = False  
        .MatchWholeWord = False  
        .MatchWildcards = True  
        .MatchSoundsLike = False  
        .MatchAllWordForms = False  
    End With
```

```
Selection.Find.Execute Replace:=wdReplaceAll
Selection.Find.ClearFormatting
Selection.Find.Replacement.ClearFormatting
With Selection.Find
    .Text = «^p»
    .Replacement.Text = « «
    .Forward = True
    .Wrap = wdFindContinue
    .Format = False
    .MatchCase = False
    .MatchWholeWord = False
    .MatchWildcards = False
    .MatchSoundsLike = False
    .MatchAllWordForms = False
End With
Selection.Find.Execute Replace:=wdReplaceAll
With Selection.Find
    .Text = «¿»
    .Replacement.Text = «^p^p»
    .Forward = True
    .Wrap = wdFindContinue
    .Format = False
    .MatchCase = False
    .MatchWholeWord = False
    .MatchWildcards = False
    .MatchSoundsLike = False
    .MatchAllWordForms = False
End With
Selection.Find.Execute Replace:=wdReplaceAll
End Sub
```